

Oraindik ez dituzu eskatu Argiaren Bonu Soziala eta Bonu Termikoa?

Argiaren **bonu soziala** Estatuko gobernuak sortu zuen, 2009an, hainbat kolektibo kalteberatako pertsonak babesteko; besteak beste, kide ugariko familiak.

Bonu termikoa, berriz, laguntza-programa bat da, berogailua eta ur beroa edo sukaldea erabiltzeak kontsumitzaile kalteberenei eragiten dizkien gastu termikoak konpentsatzeko.

897/2017 Errege Dekretuak, urriaren 6koak, kontsumitzaile kaltebera nor den, bonu soziala eta babesteko beste neurri batzuk arautzen ditu, argindarra etxean kontsumitzen duten pertsonak gogoan; ETU/943/2017 Aginduak, urriaren 6koak, hura garatzen du. Bonu soziala aplikatzeko bete beharreko baldintza berriak jasotzen dituzte.

ARGIAREN BONU SOZIALAREN HARTZAILEAK ETA BALDINTZAK

Argiaren bonu soziala eduki ahal izango du edozein pertsona fisikok, baldin eta ohiko etxebizitzan Erreferentziako komertzializatzailearekin 10 kW-etik beherako potentziako Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioaren (KTBP) tarifa bat kontratatua badu.

Energiaren gaineko deskontua aplikatuko da urtean 4.140 kW-eko muga aintzat hartuta.

Bonu soziala aplikatzerakoan, 3 kontsumitzaile-mota bereizten dira:

- Kalteberak (kide ugariko familiak, besteak beste)
- Kaltebera larriak (errenta-maila txikiko kide ugariko familiak, besteak beste)
- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskupeko kaltebera larria

KONTSUMO-MUGAK

Energiaren gaineko deskontua aplikatuko da urtean 4.140 kW-eko muga aintzat hartuta.

BALDINTZAK

Bonu soziala izateko eskubidea dute pertsona fisikoak diren kontsumitzaileen hornidurek, baldin eta haien ohiko etxebizitzan badaude, Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa (KTBP) atxikita badaude, 10 kW-etik beherako potentziarekin, eta kontsumitzaile-motaren araberrako baldintzak betetzen badituzte: kalteberak, kaltebera larriak eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskupeko kaltebera larria.

Esan beharra dago bonu soziala duten familiei ez zaiela hornidura etengo, faktura ordaindu ezean, familia-unitateetan gutxienez 16 urtetik beherako adingabe bat baldin badago, edo familia-unitateko kideetako batek % 33tik gorako desgaitasun bat edo II. edo III. mailako mendekotasuna baldin badu.

ZUZKIDURA EKONOMIKOA

Kaltebera (% 25eko deskontua fakturan)

- Kide ugariko familiaren titulua izatea.

Enpresa komertzializatzaileek kontsumitzaile kalteberari hornidura eteteko epea, faktura ez ordaintzeagatik, lau hilabetekoa izango da, bi hilabetekoa beharrean.

Kaltebera larria (% 40ko deskontua fakturan)

- Errenta-maila IPREM (ondorio anitzeko errentaren adierazle publikoa) bi aldiz baino txikiagoa (15.039,18 euro) duten kide ugariko familiak.

Enpresa komertzializatzaileek kontsumitzaile kaltebera larriei hornidura eteteko epea, faktura ez ordaintzeagatik, lau hilabetekoa izango da, bi hilabetekoa beharrean.

Gizarte-bazterkeria jasateko arriskupeko kaltebera larria

Kontsumitzaile hauen errentak ez dira iristen kontsumitzaile kalteberentzako ezarritakoen % 50era, gizarte-zerbitzuek artatuta daude, eta horiek fakturaren % 50, gutxienez, finantzatzen diete. Kontsumitzaile hauek ez dute argia ordainduko, eta haren faktura honela finantzatuko da: % 50 gizarte-zerbitzuek, % 10 komertzializatzaileak eta % 40 bonu sozialari berari dagokion deskontuagatik.

* Enpresa komertzializatzaileek ezingo diete eten hornidura gizarte-bazterkeria jasateko arriskupean dauden pertsoneri.

ESKAERA

Aurretik bonu soziala izapidetu duten bezeroen kasuan, indarrean den araudiaren arabera, 2019ko abenduaren 31 baino lehen ez badute eskatu bonu soziala baldintza berrien arabera aplikatu dakien eta egun onuradunak badira, aipatu datatik aurrera jaulkitzen den lehenengo fakturatik aurrera, edo bigarrenetik, ez zaie bonu soziala aplikatuko, eta argindarraren hornidura KTBPren arabera fakturatuko da.

Bonu soziala modu hauetako batean eskatu ahal izango da:

- Dagokion eskaera beteta eta banatzailearen bulegoetan aurkeztuta; hark erreferentziazko komertzializatzaileari helaraziko dio.
- Dagokion eskaera behar bezala beteta eta eskaneatuta erreferentziazko komertzializatzaileak bere webgunean eta fakturan adierazitako fax-zenbakira edo posta elektronikora bidalita.
- Dagokion eskaera behar bezala beteta erreferentziazko komertzializatzailearen bidez aurkeztuta (aukera hori ematen dutenak).
- Dagokion eskaera behar bezala beteta erreferentziazko komertzializatzaileak bere webgunean adierazitako posta-helbidera bidalita.

Kide ugariko familiek **izaera hori egiaztatzen duen tituluaren indarraldia amaitu arte** izango dute indarrean bonu soziala.

Indarraldia amaitutakoan, aipatu epea bukatu baino 15 egun baliodun lehenago, gutxienez, kontsumitzaileak berritu dakion eskatu ahal izango du, eskaera egiteko aurreikusitako moduetako baten bidez. Edozelan ere, kasu hauetan, erreferentziazko komertzializatzaileak gutuna bidaliko du bonu sozialaren indarraldia amaitu baino lehen.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Hobaria eskuratzeko, kide ugariko familiak honako hauek bete eta aurkeztu beharko ditu:

- Inprimakia behar bezala beteta.
- Horniduraren titularraren IFZren edo AIZen fotokopia, edo, bestela, familia-unitateko kide guztienak (familia-unitateko 14 urtetik beherako kideen IFZ edo AIZ aurkeztu beharra dago, baldin eta badaukate).
- Familia-unitateko kide guztien errolda-ziurtagiria, banakakoa edo baterakoa.
- Familia-liburuaren fotokopia, edo, bestela, familia-unitateko kide bakoitzaren Erregistro Zibileko orri indibidualaren ziurtagiria.
- **Kide Ugariko Familia**: kide ugariko familia tituluaren fotokopia.

BONU SOZIAL TERMIKOAREN HARTZAILEAK ETA BALDINTZAK

Bonu honen onuradunak izango dira, inolako izapide edo eskaerarik egin behar izan gabe, 2019ko abenduaren 31n bonu sozial elektrikoaren onuradun zirenak, bai eta data hori baino lehen eskaera osoa aurkeztu eta onuradun-izaera eskuratu zutenak ere.

Onuradun bakoitzagatiko laguntza ordainketa bakarrean jasoko da, urtero, argindarraren faktura helbideraturik dagoen kontu korrante berean.

KLIMA-EREMUA	KALTEBERA	KALTEBERA LARRIA
A	25 €	40 €
B	29 €	47 €
C	39 €	62 €
D	52 €	83 €
E	71 €	113 €

ARGIAREN BONU SOZIAL TERMIKOAREN APLIKAZIO-EREMUA

Hobaria operadore hauetan aplikatuko dira:

ENDESA ENERGIA

Tel.: 800 760 909/800 76 03 33
Endesa Energía XXI, S.L. Apartado de Correos 1167. 41080 (Sevilla).
Webgunea: lotura
E-posta: bonosocial@endesa.es

CURENERGIA (LEHEN, IBERDROLA)

Tel.: 900 225 235 /0900 200 708
Faxa: 944 664 903

Posta-helbidea:
IBERDROLA Comercialización de Último Recurso
Apartado 61017. 28080 Madrid
Webgunea: lotura
E-posta: bonosocial@iberdrola.es

Arabako zerbitzuguneak:

Laudio: Lamuza 12. 01400
Gasteiz: Jesus Guridi 8. 01004
Eduardo Dato 7, behe. 01005
Forondako Atea 13, behe. 01010

Bizkaiko zerbitzuguneak:

Barakaldo: Elkano 9. 48901
Basauri: Nagusia 3. 48970
Bilbo
Pio X.a plaza 3 (Deustuko Zubia). 48014
Sabino Arana 34. 48013
Urkixo zumarkalea 33. 48008
Santiago plaza 4, behe. 48005
Colon de Larreategui 15. 48001

Durango: Juan Antonio Abasolo 10. 48200
Galdakao: Juan Bautista Uriarte etorbidea 14. 48960
Gernika: Elvira Iturri kalea 12. 48300
Getxo
Basagoiti etorbidea 64. 48991
Ibaiondo 11. 48930
Leioa: Jose Ramon Aketxe plaza 7, behe. 1. 48940
Portugalete: Karlos VII.a 20. 48920
Santurtzi: Santurtzi parkea 1, behe. 5. 48980
Zalla: Tepeyac Urbanizazioa 2 (Udaletxe parean). 48860

Gipuzkoako zerbitzuguneak:

Azpeitia: Enparan 24. 20730
Donostia
Hondarribia 32. 20005
Aita Larroka 5, behe. 2. 20001
Eibar: Juan Guisasola 14. 20600
Oretea: Biteri 45, behe. 20100
Hernani: Elkano 16. 20120
Irun: Serapio Mugika 6. 20302
Lasarte: Kale Nagusia 42, behe. 20160
Ordizia: Kale Nagusia 10. 20240
Urretxu: Ipeñarrieta 5, behe. 20700
Zarautz: Zigordia kalea 11. 20800
Zumaia: Patxita Etxezarreta, 17, behe. 20750

GAS NATURAL

Tel.: 900 100 502
Faxa: 934 630 906

Posta-helbidea:

Gas Natural Fenosa
Bonu Soziala (adierazi mota: <3kW/Kide ugariko familia)
Apartado N° 61084
28028 Madrid

Webgunea: [lotura](http://lotura.com)
E-posta: bonosocial@gasnatural.com

Bizkaiko zerbitzugunea:
Manuel Allende 19, behea. 48010 Bilbo

Gipuzkoako zerbitzugunea:
Iparragirre 20. 20001 Donostia

Arabako zerbitzugunea:
Txile 5. 00009 Gasteiz

EDP COMERCIALIZADORA DE ÚLTIMO RECURSO

Tel.: 900 902 947
Faxa: 984 115 538

Posta-helbidea:
EDP
Apartado Postal 191
33080 Oviedo - Asturias

Webgunea: [lotura](http://lotura.com)
E-posta: bonosocial@edpenergia.es

Bizkaiko zerbitzugunea:
On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 56. 48010 Bilbo

Gipuzkoako zerbitzugunea:
Bengoetxea 3. 20004 Donostia

Arabako zerbitzugunea:
San Prudentzio 13. 01009 Gasteiz

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://energia.gob.es/es-es/Paginas/index.aspx>
<https://www.cnmc.es/bono-social>

